

ESKOLA-TAILER ETNOBOTANIKORAKO GIDA

Pablo Orduna Portús • Virginia Pascual López • Aritz Larraia Medina


1. JARDUERAREN ARRAZOA

1.1. Hezkuntzari buruzko justifikazioa

Tailer honen ezarpenarekin, ondare kulturala eta naturalaren hezkuntzan ate berriak ireki daitezke.

Ikasleak, inguruko landareria eta jakintza etnologikoaren ikaskuntzan sakontzeko aukera izanen dute zehazki. Tailerraren azken ondorioa tailerraren parte-hartzaileak izango direla kontutan hartu beharko da. Hezkuntza proiektu honen aktore nagusiak haiek dira eta ingurunearen paisai kulturalaren parte dira ere. Hori horrela, haien eremuaren natura eta giza inguruaren eboluzioa ezagutzeko gai izango dira saio hauen ondoren.

Ikasleek burututako lanaren ondorioa izango den Etnoherbario *on linearen* argitalpenarekin, haien inguruaren ezagutza handituko dute eta bide berean lagunak, auzokideak eta bailarako biztanleak inplikaturiko dituzte. Kultura herrikoian landarediak izan



duen eta duen paperaz hausnartzea bilatzen da. Lanaren garapenaren ondorio nagusia «jakintza herrikoia» ondare material eta ez-material gisa aurkeztea da, baita harekiko interesa piztea. Beraz, ikasketa esanguratsu eta jakintza-alorrrarteko baten aurrean gaude.

Azken finean, tailerra, bailararen ondare material eta ez-material-etnografikoaren babesan eta transmisioan aurrerapausu bat ematean datza. Halaber, gaztetxoek eta informatzaileen belaunaldien arteko harremanean sakontzeko aukera ematen du. Bailarako etnobotanika popularraren bagajea indartuko delakoan gaude. Dinamika eta emaitza hauen aurkezpenarekin batera, irakasleak (ingurukoak zein beste eremu batekoak ere) ondare naturala eta kulturala ezagutza esanguratsu gisa maila akademikoan txertatzearen aldeko apustua egiteko aukera indartzen dela deritzogu.

Azkenik, mundu zientifikoa eta hezkuntza munduaren arteko interakzioa emanen da etnobotanika ingurumenaren kontserbazioan tresna baliagarri baten moduan aurkeztuz.

1.2. Legegintza esparrua

Estatu mailan ,abenduak 9ko 8/2013, Lege Organikoak (LOMCE), bigarren hezkuntzako helburu nagusi bezala hurrengoak aipatzen ditu; «informazio iturrien erabilera oinarritzko gaitasunak bereganatzea , zentzu kritikoa erabiliz ezagutza berriak garatzeko» «teknologiaren esparruan oinarritzko prestakuntza bat eskuratu, espresuki informazioa eta komunikazioaren esparruan» «baita ezagutza zientifikoa diziplina desberdinen artean integratzea eta esperientziaren bitartez arazoak konpontzeko metodoak identifikatzen lortzea». Biologia eta Geologia ikasgaien garapenari so egiten badiegu, Bigarren Hezkuntzako 1., 3. eta 4. mailetan, 1105/2014, Erret Dekretuak dioenez, haiekin erlazionatutako bloke ezberdin batzuk aurki ditzazkegu. Hauen artean honakoak aurkituko genituzke:

- ✓ 3. Multzoa: lur planetako biodibertsitatea eta 7. Multzoa: Ikerketa proiektua (1. eta 3. maila)
- ✓ 3. Multzoa: ekologia eta ingurugiroa eta 4. Multzoa: ikerketa proiektua (4. maila)

Halaber, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Geografia eta Historiaren ikasgaiaren barruan, tailerrarekin erlazionatutako eduki multzoak aurki ditzazkegu, adibidez:

- ✓ 2. Multzoa: Giza eremua (1. Eta 2. maila)
- ✓ 10. Multzoa: oraina, iragana eta etorkizunaren arteko harremana Geografia eta Historiaren bitartez (4. maila).


Bestalde, otsailaren 28ko 126/2014 Erret Dekretuan, Lehen Hezkuntzako oinarritzko kurrikuluma ezartzen delarik, «diziplina anitzeko hezkuntzan Gizarte Zientziak eta Natur Zientzien arteko elkarreraginan sakontzearen garrantzia» azpimarratzen da.

Estatuko legedia ahaztu gabe baina, Nafarroako legediari so eginez, hezkuntza eredu ezberdinak aukeratu daitezke foru komunitatean Euskarako 18/1986 Lege Foralak ezartzen duenez. Bestalde, 24. eta 26. Artikuluak diotenez, eskaintza elebidun honekin, euskararen ezagutza eta ikaskuntza maila egokian bideratzea bilatzen da. Horregatik, Tailer hau Nafarroako bi hizkuntz errealtateak kontutan hartuz sortua izan da eta bai gaztelaniaz eta bai euskaraz landu daiteke parte hartzeko aukera berdintsuak eskainiz.

Lehen Hezkuntzako arautegi foralean, uztailak 16ko 60/2014 Foral Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntzako ataleko kurrikuluma ezartzen da. Helburuen artean, (4. artikulua) Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia eta Kulturako oinarritzko gaiak ezagutu behar dira, hala nola hizkuntz aniztasuna eta ohiturak, hauek baitira Nafarroako Foru Komunitatea berezi egiten duten faktoreak eta horiek ezagututa, komunitatearen parte sentitzeko bidea irekitzen dute. Honekin batera, «landaredia eta fauna ezagutu eta balioetsi, batez ere, Nafarroakoak direnak eta hauek mantendu eta zaindu ahal izateko jarrerak garatzea» ezartzen da. Hau honela, gure tailerraren helburu didaktikoekin bat egiten dutela uste dugu.

Bestalde, foru dekretu honen 7. artikuluan, irakasleek kontuan hartu beharreko osagaiak aipatzen dira. Haien artean, Lehen Hezkuntzako kurrikulumean «garapen ja-sangarria eta ingurumenarekin lotutako edukiak» azpimarratzen dira. .

Besteak beste, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako kurrikulumiari dagokionez, apirilak 22ko 24/2015 Foru Dekretuak 4.artikuluari gehigarri haxe dakar: «osasunarekin erlazionatutako ohiturak, kontsumoa eta izaki bizidunak eta ingurumenaren zaintza kritikoki balioetsi haien kontserbazioa eta hobekuntza sustatuz». Kurrikulumenko eduki hauek hezkuntza atal hauetan, 14/2005 Nafarroako Ondare Kulturalaren Lege Foralaren babespean agertzen dira. Lege honen hasierak gogoratzen haxe digu: «Espainiako konstituzioak botere publikoei agintzen die kulturaren babesa eta sustapena 44.1.artikuluari eta ingurumen egoki baten eskubidea bermatzea 45.1.artikuluari». Honekin batera, 46. artikuluan «herrien ondare historiko, kulturala eta artistikoa babesteko» hitza ematen du.



Honengatik, Nafarroako legediak 3.artikuluari, 1.izenburuari, Nafarroako Ondare Kulturala balioetsi, zaindu eta babestu behar dela dio beti ere, ingurugiroaren interesari jarraituz. Eta zabalkundeari dagokionez, 2.izenburuari (hezkuntza, ikerketa eta formakuntza) zera dio: «Nafarroako Ondare Kulturalaren ezagutza eta balioestea sustatzeko hezkuntza politikak garatu behar dira». Beraz, eta derrigorrezko hezkuntza azpimarratuz, hezkuntza sistemako maila eta gradu desberdin guztietan jarduera eta ikasgai hauen ikaskuntza sustatuko duela dio. Eta bukatzeko: «ikaskuntza espezializatua eta ikerketa sustatu, mantentze, zaharberritze, eta ondare kulturalaren aberasterako beharrezkoak diren baliabide guztiak eskainiz, Unibertsitate zein zentru pribatu eta publikoekin beharrezko elkarlanean aritzea».


1.3. Tailerraren helburuak

Nagusia:

Ikasleak zein bailarako irakasleak inguru naturala eta gizakizatatutako lurraldearen sinbiosiaz jabetuaraztea diziplina anitzeko ikuspegi batetatik esperimentazioaren bitarteko autodidaktika eta ikasketa esanguratsua batze aldera.

Helburu Zehatzak:

- ❖ Paisaia eta inguru naturala (landaredia) ondare kultural material eta ez-material gisa birbaloratu (UNESCO 1973)
- ❖ Ondare hezkuntza eta etnologiarekin ikuspegitik GGZZ eta NNZZen hezkuntza dinamikan etnobotanika txertatzea.



- ❖ Inguru naturala hezkuntza tresna gisa baliatuz, jakintza tradizionalaren kontzeptua sustatu.
- ❖ Diziplina anitzeko eta oinarri parte-hartzailea duten baliabide didaktiko berriak sortu ikasleak haien inguru soziala, kulturala eta naturalarekin integratzeko.

Hartzaileak:

Jarduera proposamen honen hartzaileak martxan jarri nahi duten eskoletako ikasle taldeak izango dira. Ikasle hauek Lehen Hezkuntzako edota Bigarren Hezkuntzako maila desberdin zein hizkuntza eredu desberdinetako ikasleak izan daitezke. Irekidura honi esker tailerrak elebidunak (euskara eta gaztelera) edo ingelerakoak izan daitezke.

Halaber, etnoherbario digitalaren emaitzei esker baliabide didaktiko berrien zabal-kundea emateko aukera eskaintzen du Nafarroako Foru Komunitatearen mugetatik kanpo ere.

2. LAN DINAMIKA

2.1. Aldiak eta zatiak


Webgunean tailerraren sekuentzializazioaren aldi bakoitza eta zati bakoitzaren metodologia eskuragarri dago PDFan.

Era berean, parte-hartzaileak bakarka edo taldean lan egin behar duten eta erabili beharreko materiala eta kronologia zehazten da.

2.2. Informazio eta ekintzen kudeaketaren metodologia

Etnologia eta botanikaren inguruan, eremu-ikerketa lan anitz ditugu gaur egun. Halere, tailer honi dagokionez eta hezkuntza beharrei so eginda, dibulgaziozko ikuspegi, hezigarri eta aise ikasteko jarduera aproposenak erabiliko ditugu.

Tailerraren Metodologia



Iturria: Gure lantzea

- ❖ **Tailerraren taldea:** Hasiera batean, eta talde lana sustatzearen, begirale bat eta 15 lagunentzako mugatuta dago. Horrek ez du esan nahi, gela bakoitzaren kopuruaren arabera, taldetxo desberdinekin landu ez daitekeenik. Adingabeak jardura hauetan parte hartzeko tutore legalen edo gurasoen baimena sinatzea eskatuko da ikasle bakoitzeko. Saio teoriko bakoitzean hezitzailea beti egongo da bertan.
- ❖ **Konfidentzialtasuna:** Ikasleen datu pertsonalei dagokionez, konfidentzialtasun osoko politika bat jarraituko da. Etnoherbarioaren zabalkunde prozesuan haien nortasuna isilpean gordetzeko gurasoen edota tutore legalen baimena beharrezkoa izango da. Etnoherbarioaren fitxa bakoitzean sortzailearen izena ipintzea arrunta izan ohi da. Kasu honetan, tutore legal edo gurasoen baimenarik gabe ezinezkoa izanen da. Fitxan ikaslearen izena ez agertzearen erabakia hartzeen baldin bada, errespetatu egingo da. **Hezkuntza eremua:** Saio teoriko hauek gela egin beharrean beste eremu desberdin batzuetan egitea komenigarria dela uste dugu (patioan, parkean...) jardura erakargarriagoa egitearren. Eremu hauetan burutzean, parte-hartzaileen lanarekiko interesa eta balorazioa egokiagoa izango delakoan gaude.

- ❖ **Lagin bilketa:** Ikasleek bakarka egingo dute betiere, 10 unitatetara mugatuta. Egunkarien artean ipiniak izango dira eta hilabete batetan zehar (gutxienez) lehortuko dira. Behin lehortuak daudelarik zazpi egunetan zehar izoztu egingo ditugu onddoak eta intsektuen agerpena galarazteko.
- ❖ **Landareen tolestura fisikoak:** Landareen laginak kartulinetan jarriko dira beren taxonomia, izen zientifikoa, izen herrikoia erabilera etnologikoa, ikaslearen izena (baimena baldin badu), landarea zientifikoki identifikatu duen pertsonaren izena eta aurkitutako lekua zehazten direlarik. Tailerraren ostean, herbarioak unibertsitateei edota administrazio publikoei entregatu daitezke hauek egoki kontserbatu ditzaten.
- ❖ **Tolesturen argazkiak:** Formatu digitalean aurkeztu beharko dira webguneko etnoherbarioan kokatzeko.
- ❖ **Deskripzioa:** Landare bakar bezala deskripzio botaniko motz eta argia izan beharko du.
- ❖ **Analisi etnologikoa:** Datu etnografikoak landare bakoitzaren arabera etnoherbarioaren fitxa bakoitzean antolatu egingo dira. Fitxa hau etnoherbarioaren kudeatzaileei eman beharko zaie hauek bertan datuak txertatu ditzaten.
- ❖ **Emaitzen ebaluazioa –Portfolio-:** Portfolioa ikasle bakoitzaren auto-ebaluazioa eta ikasketa erregulatua bermatzen du (ikasketa metakognitiboa). Ikaslea unitate didaktiko osoan zehar egindako jarduerak bildu, antolatu, dokumentatu eta baloratzean datza. Modu honetan, irakasleaz aparte ikasle bakoitzak ikasitakoa ebaluatzen aukera izanen du. Ebaluazio sistema honen bitartez ikaslea puntuazio baten ordeztu, haren esku-hartzez kritikoki eta autonomoki hausnartu dezake. Honi esker, haren inguru naturalaren gaineko interesa eta motibazioa sustatzen ariko gara. Portfolioa elkarrekintzarako elementu bat izateko pentsatuta dago. Tailer aktiboa harreman interpertsonaletan eta talde lanean eraginkorra izateko, ikasle bakoitzaren buruaren balorazioari bidea eman behar dio. Horrela jokatuz gero, eremu-ikerketak honen parte-hartzaileak bereganatu dituzten jakintzak zintzoki balioetsiko dutelakoan gaude. Modu honetan, epe luzera kudeatu ahalko dituzte tailerrean bereganatu dituzten gaitasunak zein jakintzak.
- ❖ **Mahai-ingurua:** Talde lanaren azken zatian, jardueraren inguruko garapena zein emaitzei buruz mahai-inguru bat antolatzea gomendagarria da.

3. AURREIKUSITAKO EMAITZAK

Tailerrean parte hartzen duten eragile guztien ahaleginarekin aurreikuste diren emaitzak honako hauek dira:

- ❖ Ikaslearen diziplina-anitzeko auto-ikaskuntza esanguratsua erraztea.
- ❖ Herri esparrua, esparru zientifikoa eta hezkuntza esparruaren arteko elkarreragina lortu.



- ❖ Bertako inguru natural, linguistiko eta ondarezko balioak partaidezko era gisa finkatu.
- ❖ Jakituria herrikoia ondare material eta ez-material gisa helarazi eta babesa eskaini.
- ❖ Webguneko etnoherbarioan eskaintzen den informazioaren bitartez heziketa-ekimena zabaltu.

4. ESKURAGARRI DAUDEN LAN-MATERIALAK

Tailerra prestatzeko eta ikasleak erabiltzeko, etnoherbario digitala agertzen den web-orrian bai euskaraz eta bai gaztelaraz honako txantiloak hauek eskuragarri daude PDFan deskargatu eta inprimatu ahal izateko.

- Erreferentziatzeko bibliografia
- Atal desberdinen sekuentzializazioa, kronometria eta oharak agertzen diren taula.
- Etbonotarikari buruzko GGZZen lehen saioaren gidoia.
- Lagin bilketari buruzko NNZZen lehen saioaren gidoia.
- Tutore legala edo gurasoak sinatzeko ikaslearen partaide baimena
- Partaideak erabiltzeko galdetegiaren eredua.
- Fitxa etnobotanikoaren eredua jasotako landareei buruzko informazioa antolatzen laguntzeko.
- Ikasle bakoitzaren auto-ebaluaziorako erabiliko den portfolioaren eredua.
- Irakasleen gida

Etnoherbariora sartzeko erabiliko den webgunearen helbidea:

<http://www.unav.edu/eu/web/catedra-de-lengua-cultura-vasca/actividades/actividades-ano-2017/etnoherbario-escolar-xeingorri>

Argitaratzailea:



Sustatzailea:



Universidad
de Navarra

Euskal Hizkuntza
eta Kultur Katedra
Cátedra de Lengua
y Cultura Vasca

Kolaboratzailea:



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

© Testuak: Pablo Orduna Portús, Virginia Pascual López, Aritz Larraia Medina
eta Nafarroako Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Kultur Katedra.

© Irudiak: Javier Muñoz Fernández.

LG: NA 2145-2017